



TELUR GEOTERMIA Y AGUA, S.A.

Sozietatearen izena

Telur Geotermia y Agua, S.A.

IFK

A95567756

Izaera

Sozietate anonimoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Sozietatea 2009ko martxoaren 25ean emandako eskritura publiko bidez eratu zen. Energiaren Euskal Erakundearen parte-hartzea [Energiaren Euskal Erakundeari Telur, Geotermia y Agua, S.A. sozietate berrian parte hartzeko baimena ematen dion otsailaren 17ko 39/2009 DEKRETUAREN](#) bidez onartu zen.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

7120 Saio eta analisi teknikoak.

Sozietatearen helburua

Sozietatearen helburua honako hau da:

- Energia geotermikoaz baliatzeko sistemak ebaluatzeko eta eraikitzeko azterketak, proiektuak eta obrak, energia mota hau beste energia konbentzional edo berriztagarri batzuekin konbinatzeko teknologia eta sistema hibridoak barne.
- Instalazio geotermikoak finantzatzea, ordainketa geroago egiteko akordioen, aurrezki partekatuen, sortutako energia saltzearen edo adostu daitekeen beste edozein finantzazio-formularen bidez.
- Jardun-eremuetako obrak zuzentzea.
- Klimatizazioko instalazioak diseinatu, muntatu, instalatu eta mantentzea.
- Metodo, tresna eta teknologia berriak ikertu eta garatzea, sistema geotermikoetan aplikatzeko.
- Jardun-eremuekin zerikusia duten ekipo eta tresnak diseinatzea, fabrikatzea eta merkaturatzea.
- Lurpeko eta lur gaineko uren ikerketa, miaketa, ustiapen, konponketa eta monitorizazio azterketak, proiektuak eta obrak.
- Jarduera nagusiarekin zerikusia duten gaiei buruzko aholkularitza eta laguntza.
- Jarduera nagusiarekin zerikusia duten gaiei buruzko irakaskuntza, hezkuntza, zabalkunde edo edizio jarduerak.

Sailkapena kontabilitate nazionalan


Sozietate ez-finantzarioak.

Kapital soziala

500.000 €

Kapital sozialaren osaera

Energiaren Euskal Erakundea (EEE)	% 48,00
Azterlan Metalurgia Ikerketa Zentroa	% 40,00
Pertsona fisikoa	% 12,00



2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	901.727 €
Ondare garbia	605.993 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	900.410 €
Batez besteko langile-kopurua	16

Sozietatearen helbidea

Aliendalde Auzunea, 6, 48200 Durango (Bizkaia)

Webgunea

www.telur.es